

<100m² GARAJEEN BALDINTZA TEKNIKOAK (4 plaza gehienez)

100 m²ko baino gutxiagoko garajeek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- **25 m² ko azalera erabilgarri bakoitzeko ibilgailu plaza bat** (>75cc 2 gurpildun 5 ibilgailu eta <75cc 2 gurpildun 7 ibilgailu)
- **Aireztapena:** aparkaleku eta garajeek **naturala edo mekanikoa** den aireztapen sistema eduki behar dute.
 - **Aireztapen naturala:** sarreraren behealdean, sarreretako irekigune bat edo batzuk jar daitezke, kanpoaldearekin zuzenki komunikatzen dutenak, eta kanporako irekigune bat edo batzuk, sarreraren goiko aldean kanpoaldearekin zuzenean komunikatzen dutenak, **gutxienez 1,5m.ko bertikalki bereizita.**

Plazak	Aire emaria (l/s)	Irekigune eraginkorra (cm ²)	Irekigunearen adibideak * (cm x cm)	Adibideak * (cm x cm)
1 plaza	120	960	20x24ko 2 irekidurak	10x24ko 4 irekidurak
2 plaza	240	1920	20x48ko 2 irekidurak	20x24ko 4 irekidurak
3 plaza	360	2880	40x24ko 2 irekidurak	8x36ko 10 irekidurak
4 plaza	480	3840	40x48ko 2 irekidurak	10x24ko 16 irekidurak

- **Aireztapen mekanikoa:** aparkalekuaren erabilera eskusiboa. Depresioagatik egin behar da. **Erauzketa-irekigune bat eta harrera-irekigune beste bat. Erauzketa-irekigune hurbilenean arteko separazioa 10m.tik beherakoa izatea.** Gutxienez erauzketa-irekiduren bi heren jarri behar dira sabaitik 0,5m.ra edo hortik behera.
- **Isurketak:** garajeetan hustubide-sare bat instalatuko da. Sare horrek, estolderia-sarera heldu aurretik, koipeak eta lohia bereizteko sistema normalizatua izango du.
- **Sarbideak:** 2,5m.ko gutxieneko zabalerako sarbidea izango du, oinezkoentzako sarbide eta guzti.
- **Arrapalak**
 - Tarte zuzena: % 20ko gehieneko malda (ardatzean)
 - Tarte kurbatua: % 12ko gehieneko malda (ardatzean)
 - Noranzko baten zabalera: 3m.ko erre bat
 - Bi noranzko zabalera: 3m.ko erre bat.
 - Gutxieneko altuera: 2,2m
- **Instalazio elektrikoa:** araudia betetzeko, instalazio elektrikoaren ziurtagiri bat eskatuko da, eskudun instalatzaile batek emana (**Buletin elektrikoa**)
- **Suteetarako segurtasuna:**
 - Seinalea "IRTEERA" errotuluarekin (azalera < 50m²)
 - **21A-113B eraginkortasuneko itzalgailu bat** solairu bakoitzeko 15 metroko ibilbidean

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Lokalaren alokairu-kontratua edo eskriturak
- Garajearen memoria teknikoak, teknikari eskudun batek sinatua, aurreko neurriak justifikatuz.
- Ibilgailuentzako plazak mugatzen dituen lokalaren planoak
- Eraikinaren fatxadaren altxaera-planoak, egungo egoera eta etorkizuneko egoera
- Garaje bihurtzeko lokalean ustez egin beharreko obrak deskribatzen dituen memoria teknikoak
- Ustezko obraren aurrekontuak

* Adibideak irekiduren tamainaren gida soil bat dira, eta kasu bakoitzerako bereiz daitezke.